

LEIOA INDARTU BONOIA 2020

1. DEIALDIAREN XEDEA

Bertoko merkatarietara laguntzeko eta kontsumoa bultzatzeko kanpaina sustatzea, baina saltokiek Leioako udalerrikoak izan beharko dute, bai eta bigarren ataleko baldintzak bete ere.

2. NORI ZUZENDUA: ONURADUNAK

Ekimen honi atxikitzeko modua izango dute hamar (10) langile baino gutxiago dituzten saltokiek. Langileak norberaren konturako edo besteren konturako langileak izango dira, forma juridikoa kontuan hartu gabe, eta honako baldintza hauek beteko dituzte:

- Saltokiek Leioako udal-mugarrean egon behar dute.
- Saltokiari dagokion ekonomia-jardueren gaineko zerga (JEZ) I. eranskinetako jardueraren batekin bat etortzea edo saltokiaren txikizkako merkataritza-salmentaren bolumena fakturazio osoaren % 35 baino txikiagoa izatea.

Saltoki eskatzaileek egunean izan beharko dituzte Leioako Udalarekiko zein administrazio publikoarekiko zerga-betebeharrak, baita Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere, kanpainari atxikitzeko eskabidea egiteko datan.

3. ESKABIDEAK: NOLA EGIN ETA EGITEKO EPEA

• **Lekua:**

Egoitza Elektronikoa aurkeztuko dira, horretarako www.udaletxean.leioa.eus webgunean eskuragarri dauden inprimakiak aurkeztuz.

Deialdiaren helburu espezifiko eta zehatza kontuan hartuta, salbuespen gisa, horri buruzko eskabideak aurrez aurre aurkezteko aukera gaitzen da Behargintzaren egoitzan.

• **Atxikitze-aldia:**

Eskabideak aurkezteko epea oinarri hauek Udalaren egoitza elektronikoko [iragarki-taulan](#) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, bonuak agortu arte, edo, azken buruan, 2020ko abenduaren 20an.

• **Entregatu beharreko dokumentazioa:**

Eskabidea behar bezala beteta.

Eskabidea aurkeztea oinarrien edukia onartzea eta eskatutako baldintzak betetzea ekarriko du. Erantzukizunpeko adierazpenaz egiaztatuko da baldintzak betetzen direla.

Atxiki den saltokiak emandako datuak eskatutako baldintzekin bat ez badatoz, hura "LEIOA INDARTU BONOIA 2020" kanpainatik kanpo geratzea gerta liteke.

- Hala badagokio, eskabidea aurkezteko ahalordea edo baimena.

4. EDUKIA

- Merkataritza-jarduera indarberritzea eta deskontu-bonoen bidez herritarren artean kontsumoa bultzatzea dira “LEIOA INDARTU BONOIA 2020” kanpainaren helburuak.
- Bonu-formatua: bi bonu-mota jarriko dira herritarren eskura, zenbateko hauekin:
 - o 20 + 10; 20 €-ko zenbatekoarekin, 30 €-ko balioa emango dio eramaileari, atxikitako establezimendu-sarean kontsumoko ondasunak eta zerbitzuak erosteko. Erosketaren gutxieneko zenbatekoa 30 eurokoa izango da.
 - o 10 + 5; 10 €-ko zenbatekoan, 15 €-ko balioa emango dio eramaileari, atxikitako establezimendu-sarean kontsumoko ondasunak eta zerbitzuak erosteko. Erosketaren gutxieneko zenbatekoa 15 eurokoa izango da.
- Bonoak erabiltzeko aldia 2020ko irailaren 10etik abenduaren 31era arte ezarriko da, bonoak lehenago bukatzen baldin ez badira. Aldi horretatik kanpo ez da bonoz erosterik onartuko
- Bonuak <https://tickets.kutxabank.es> helbidean eskuratu ahal izango dira, eta inprimatu edo erakutsi ahal izango dira telefono mugikorrean erosketa edo kontsumoa egingo den atxikitako establezimenduan. Bai eta ere Kutxabanken zerbitzu anitzeko kutxazainetan erosi eta inprimatu ahal izango dira, edozein kreditu/zordunketa txartelean. Gehienez txartel bakoitzeko 2 bonu erosi ahal izango dira.
- Erosketa-tiket bakoitzaren truke, saltokiak bi (2) bono onartuko ditu gehienez ere. Bonoen zenbatekoa erosten bukatu beharko da.
- Bonuak atxikitako establezimenduetan bakarrik trukatu ahal izango dira kanpainaren indarraldian, eta ezin izango da bonuaren zenbatekoa berreskuratu trukatu ez bada.
- Saltokiek ezin izango dute bonuen erabilera genero eta/edo produktu jakin batzuetara mugatu.
- Astero likidatuko dira aurreko astean bildutako bonuak.

5. PARTE HARTZEN DUTEN SALTOKIEN KONPROMISOAK KANPAINARI ATXIKITZEAGATIK

- Bezeroei kanpainaren nondik norakoak azaltzea.
- Establezimendu bakoitzak Leioako herritarren artean eta eskura dauden baliabideekin ekimen hau ahalik eta gehien zabaltzen lagundu beharko du; WEB, RRSS.
- Kanpainaren bereizgarria saltokian bertan ikusteko moduko leku batean jartzea. Atxikitzen den unean emango zaio kanpainaren bereizgarria saltokiari.

- Behargintza Leioari behar beste argibide eta agiri ematea, hala eskatuz gero, ekimen honen oinarriak behar den bezala betetzen direla egiazta dezan.

6. EBAZPENA

Ekimen honen onuradun izan daitezkeen establezimenduen artean zabaltzeko eta informatzeko hasierako fase baten ondoren, ekimenari atxikitzeko eskaerei buruzko ebazpena emango da, eta ezespenik badago, arrazoia emango da, eta eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio.

Ondoren, astean behin, kanpaina honen indarraldian aurkeztutako atxikitze-eskaerak ebatziko dira. Kanpainari atxikitako establezimenduen zerrenda www.behargintzaleioa.net webgunean argitaratuko da.

6. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa betetzeko xedez, Leioako Udalak aditzera ematen du eskatzaileen datu pertsonalak modu automatizatuan tratatu ahal izango direla eta Leioako Udalaren informazio sisteman sar daitezkeela. Datu horiek udal kudeaketan soilik erabili ahalko dira, eta beste administrazio publiko batzuei laga edo jakinarazi ahalko zaizkie. Interesdunek datuak ikusi, kendu, zuzendu eta horien aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Udalaren informazio- eta erregistro-zerbitzuaren bitartez.

**I. ERANSKINA: JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN (JEZ)
EPIGRAFEEN ZERRENDA**

-LEIOA BONOIA 2019-

Kodea	Izena
1.641	FRUITA, BARAZKI, ORTUARI ETA TUBERKULUEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.642	HARAGIEN ETA BERAIEEN EKOIZKIN ERATORRIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.643	ARRAINEN ETA BERAIEEN EKOIZKIN ERATORRIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.644	OGI, GOZOKI, KONFITE ETA ANTZEKOEN, BAITA ESNE ETA ESNEKIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.645	MOTA GUZTIETAKO ARDO ETA EDARIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.646	TABAKO-BARIETATEEN ETA ERRETZAILEENTZAKO GAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.647	OROHAR, JANGAIEN ETA EDARIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.651	EHUNGINTZAGAI, JANTZIGINTZAGAI, ZAPATA, LARRUAZAL ETA LARRUGINTZAGAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.652	DROAGINTZA, LURRIN, BOTIKEN ETA FARMAZIAKO EKOIZKINEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA.
1.653	ETXEKO EKIPAMENDU ETA ERAIKINTZARAKO GAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.654	IBILGAILUEN ETA HORIEN ALDAGAILU ETA ORDEZKAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.655	ERREGAI ETA KARBURAGAIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.656	ONDASUN ERABILIEN TXIKIZKAKO MERKATARITZA
1.657	MUSIKATRESNEN, ORO HAR, ETA HORIEN ALDAGAILUEN TXIKIZKAKO ZERBITZUAK MERKATARITZA
1.659	TXIKIZKAKO BESTELAKO ELIKAGAI-MERKATARITZA
1.671	JATETXEETAKO ZERBITZUAK
1.672	KAFETEGIETAKOAK
1.673	TABERNAK
1.676	TXOKOLATEGI, IZOTZDENDA ETA ORTXATADENDETAKO ZERBITZUAK
1.6779	JATETXEGINTZARI BEREZKOAK ZAIKION BESTE ELIKADURA ZERBITZU BATZU
1.971	IKUZTEGIAK, TINDATEGIAK ETA ANTZEKO ZERBITZUAK
1.972	ILEAPAINKETA ARETOAK ETA EDERGINTZA INSTITUTUAK
1.973	ARGAZKIGINTZA ZERBITZUAK ETA FOTOKOPIA ZERBITZUAK

* Parafarmaziako produktuetarako baino ez /

- Jasotako epigrafeen zerrendaz gain, osagarri gisa, beste jarduera batzuk ere aintzat hartu ahalko dira, txikizkako merkataritza salmentaren bolumena edo saltokia kalean bertan kokatuta egotea kontuan hartuta.